

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4771

AGINDUA, 2015eko urriaren 23koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena. Honen bidez, Nekazaritza Funtsen Batzorde Parekidean (Copafa) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren hainbat batzordekide kargutik kendu eta berriak izendatzen dira, eta Foru Aldundietako hainbat batzordekideren kargutik kentzeari eta berriak izendatzeari eta batzordearen eraketa berriari publizitatea ematen zaio.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuaren 2008ko maiatzaren 26ko Aginduaren bidez, abenduaren 15eko 367/1998, 368/1998 eta 369/1998 Dekretuei jarraikiz sortutako Batzorde Parekideari izena eman zitzaion, haren eraketa zehaztu zen eta funtzionamendu arauak finkatu ziren.

Batzorde horri Nekazaritza Funtsen Batzorde Parekidea (Copafa) izena eman zitzaion, eta, funtzioen aldetik duen askatasunari kalterik egin gabe, gaur egun Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari atxikita dago.

Abenduaren 15eko 367/1998, 368/1998 eta 369/1998 Dekretuen arabera, Copafak honako kide hauek ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, batetik, eta hiru foru aldundiak, bestetik. Halaber, sei batzordekide izango ditu, hiru Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarenak eta beste hirurak foru-aldundienak.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkarien inguruan izandako aldaketak direla eta, beharrezkoa da izendapenak eguneratzea eta batzordearen eraketa berriari publizitatea ematea.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Iñaki Aldekozarai Labaka eta Eduardo Aguinaco López de Suso kentzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean Copafa Nekazaritza Funtsen Batzorde Parekideko batzordekide izatetik.

Bigarrena.– M.^a Teresa Amezqueta Alegría eta Elena Gutierrez Pérez del Notario izendatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean Copafa Nekazaritza Funtsen Batzorde Parekideko batzordekide izateko.

Hirugarrena.– Publizitatea ematea Luis Javier Román de Lara, Ikerne Zuluaga Zamalloa eta Koldo Lizarralde Iraola Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien izenean Copafa Nekazaritza Funtsen Batzorde Parekideko batzordekide izatetik kentzeari.

Laugarrena.– Publizitatea ematea Alfredo Sáenz de Castillo Beltrán de Otalora, Lucía Isla Llona eta Xabier Arruti Olazabal, hurrenez hurren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien izenean Copafa Nekazaritza Funtsen Batzorde Parekideko batzordekide izendatzeari.

Bosgarrena.– Publizitatea ematea Copafa Nekazaritza Funtsen Batzorde Parekidearen eraketa berriari, ordezkariari dagokienez izandako aldaketak sartuta.

Copafa Nekazaritza Funtsen Batzorde Parekideko batzordekideak hauek dira:

2015eko azaroaren 9a, astelehena

Lehendakaria:

M.^a Teresa Amezqueta Alegría, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Zerbitzu zuzendaria.

Batzordekideak:

Ikerne Zuluaga Zamalloa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria.

Elena Gutierrez Pérez del Notario, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria.

Alfredo Sáenz de Castillo Beltrán de Otálora, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritzako zuzendaria.

Lucía Isla Llona, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritzako zuzendari nagusia.

Xabier Arruti Olazábal, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako zuzendari nagusia.

Idazkaria:

Josu Erauzkin Barrenetxea, erakunde ordaintzailearen arduraduna, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari atxikitako karrerako funtzionarioa.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 23a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.